

GPSaren

ERABILERA

GPS modelo asko dago merkatuan. Ikastaro honetan azken generaziokoekin trebatuko gara eta gure mendiko irteerak geroz eta seguruagoak izango dira.



BIZKAIKO GOI MENDI ESKOLA

Ikastaroa: GPSaren erabilera



Sarrera

Orientazioa mendizale eta natura maite duen ororen behin betiko tresna suposatzen du. Askotan ordea, hura gutxietsi eta gure buruan eta senean gehiegi sinestearen akatsa egiten dugu. Orientazio teknika modernoei eta GPSaren erabilera zunari esker, gure ibilaldiak seguruagoak eta erosoak bihurtuko dira.

Helburuak

Ikastaro honen helburua, mendiko GPSa era egoki batean erabiltzea da. Horrekin batera, osagarri diren mendiko beste orientazio tresna berezien ezagutza menperatzea ere bai: brujula, altimetroa, ordenadorea, interneta, beharrezko software-a eta oinarri kartografikoak.

Euskal Goimendi Eskola
Bizkaia



Ikastaroaren edukiak

- Mendiko orientaziorako tresnen eta kontzeptuen ezagutza:

Oinarrizko materiala: mapa, brujula eta altimetroa.
Material aurreratua: GPSa, ordenagailua eta programa informatikoak.

- GPSaren oinarrizko erabilera:

Leheneratzea, konfigurazioa eta GPSaren interfazea. Gomendatutako doitzeak.

GPSarekin landako oinarrizko ariketak: ibilbide bat trackeatu eta gorde, gordetako ibilbide bat jarraitu, waypoint bat ezarri...

- GPSaren erabilerarako beharrezko programa informatikoak: Base Camp, Google Earth, GP Sies, Wikiloc.

- GPSaren erabilera aurreratua:

Ordenagailu edota GPS ezberdinen arteko artxibo trukaketak.

Mapa eta programen instalazioa.

Ordenagailuarekin track bat nola bilatu, sortu eta aldatu.

Artxibo ezberdinen (KMZ, KML, GPX) ezaugarriak eta erabilerak.

LEHENENGO EGUNA

Gela barruko eta landako saioa (goizez):

- Oinarrizko orientazio kontzeptuetatik hasita, GPSaren funtseraino hedatzen den gai teorikoa.

- Ariketa praktikoak.

- GPSaren oinarrizko erabilera: saio teorikoa egingo dugun inguruan landako ariketa praktikoak.

Gela barruko saioa (arratsaldez):

- Goizean sortutako artxiboekin lana.

- Google Earth, Base Camp eta GP Sies.

BIGARREN EGUNA

Gela barruko saio teorikoa (goiz erdia):

- Aurreko egunean ikusitakoaren errepasoa.

- Mendi irteeraren prestaketa.

Mendiko ibilbidea (goizez-arratsaldez):

- Zailtasun baxuko mendiko ibilbide baten zehar, ezagutza guztiak praktikan jarriko ditugu.

Beharrezko materiala

- Mendi ertainetan ibiltzeko arropa aproposa. Gela barruko eta landa praktikak tartekatuko ditugun arren, inguru ezberdinetan ibiltzeko oinetako eta arropa erosoak ekartzea gomendatzen da (bigarren egunean batez ere).

- **Ordenagailu pertsonalaren oinarrizko erabilera menperatu behar da: moztu eta itsatsi, karpetak sortu eta ordenatu, programen instalazioa, interneta eta posta elektronikoa.**

- Ordenagailu eramangarria ekarri behar da. Nork bere GPSa ekartzea aholkatzen dugu.

Prezioak

Ikastaroa	Bizkaian federatua	Bizkaitik kanpo federatua
GPSaren erabilera	Kontsultatu prezioak web-gunean	



Orientazio teknologia eta tresna berriak, betiko mapa eta brujularekin harremanetan jarraitzen dute. Guztiak memperatzea aholkatzen dugu.

Oharrak

Goi Mendi Eskolak badauka GPSak uzteko aukera. Hala ere nork berak daukana eramatea gomendatzen dugu.

-Tokiak: Bizkaiko Mendizale Federazioko egoitza. Martin Barua Picaza 27, 4. solairua. Bilbo. Kirol Etxearen eraikin berdinean.

- Ordutegiak: Bi egun (larunbata eta igandea).

Larunbata: 9:45-14:00 eta 15:30-19:00 (bazkaria Federazio azpiko Artekari tabernan egin ohi dugu).

Igandea: Larunbatean zehaztuko da (9:30-17:30 gutxi gorabehera).

- Topaketaren azken xehetasunak, ikastaroko zuzendariak ikastaroa egin eta aurreko astean argituko ditu.

Ikasleen maila edota inguruaren zein eguraldiaren baldintzen arabera, irakasleek eskubide osoa dute ikastaroaren gidoia aurretik abisatu gabe aldatzeko.

Kontu zenbakia

ES84 3035 0071 64 0710024655

OHARRA: Izen-ematea egiterakoan ikastaroa ordaindu behar da.

Prezioan sartuta:

Irakaslearen zerbitzuak.

Ikastaroaren txostena eta dokumentazioa.


Banakako materiala (ez izatekotan).

Preziotik kanpo:

Janaria.

Garraioa (behar izanez gero).

Ikastarorako taldea astebete lehenago itxita geratuko da.



FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
ESCUELA VIZCAÍNA DE ALTA MONTAÑA
BIZKAIKO GOI MENDI ESKOLA

Martin Barua Picaza 27, 4. solairua
48003 Bilbao

☎ 94 443 17 34

goimendieskola@bmf-fvm.org



Euskal Goimendi Eskola
Bizkaia